

KLIMA ALDAKETAREN AURREAN EH BILDUKO MOZIOA

Larrialdi Klimatikoa gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetarikoa da, benetako zibilizazio erronka bat eta Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago, geldotasunerako.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa, Berotegi Efektuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak antzematen hasiak gara.

Urtez urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari denaren zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politikan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu. 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbizioarik ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5°Cko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurkitzearen eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrek egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai

ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela.

Eskoriatzan erronka handiak ditugu zentzu horretan ere; erabakiak hartzera behartuko gaituzten erronkak. Hurrengo urteetako plangintza garatzerako orduan gaiari helduko diogu era estrategikoan ze erabaki eta ze bide hartzen dugun erabakitzeko. Dena dela, bitartean, erabaki batzuk hartu daitezke, gure herria modernizatze aldera. Zentzu honetan 4/2019 legeak administrazio publikoei betebeharrak batzuk ezartzen dizkie, tartean, titulartasun publikoa dituzten eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

Mozio honen bitartez, **egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu**, Larrialdi Klimatikoari **behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin**, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezzen.

Eskoriatzan 2020(e)ko Urtarrilaren 3

Eskoriatzako Ehbildu Udal taldea.

Nestor Arana.

Dorleta Sologai.

Ander Errarte.

Eluska Irazu.